



## LAN-POLTSEN ARAUDI BERRIARI BURUZ JAKIN BEHAR DUZUNA

Telefono-deien ordeaz, kudeaketa telematikoaren egingo da.....	3
Eskaintzen zaizkizun plazak onartzeko denbora luzatu da.....	3
Lan-poltsan duzun egoera erabakitzea zure esku dago .....	3
Kontratua edo izendapena hobetu dezakezu.....	4
Jaso nahi dituzun eskaintzak hobeto zehaztu ditzakezu.....	4
Nahi beste aldaketa egin dezakezu zure egoeran eta lehentasunetan, eperik gabe. .....	4
Egiten dituzun aldaketek hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak. .	5
Ziurtagiri digitala izan behar duzu: identifikazio- eta sinadura-sistema.....	5
Poltsatuko kudeaketa Atarian egin behar duzu .....	5
Eskatutako lanpostu bati edo izendapen edo kontratu bati uko egiteak ez dakar behin betiko baja. ....	5
Non jasotzen ditut penalizazio-jakinarrazpenak edo behin betiko bajaren jakinarazpena? .....	6
Eragiten al dit Xedapen Iragankorrak? .....	6
<b>Ohiko galderak</b>	
Nola alda ditzaket jaso nahi ditudan eskaintzei buruzko nire lehentasunak edo poltsetan dudako egoera? .....	7
Zenbat deialdi telematiko mota jaso ditzaket? .....	7
Nola egiten da lanpostuen eskaintza? .....	7
Zer ordutegitan kudeatzen dira eskaintzak? .....	8
Arazoak izan ditut mugikorrarekin. Sar naiteke eskaintzetan? .....	8
Nori egiten zaio eskaintza? .....	8
Zer egin behar dut eskaintza bat onartzeko? .....	8
Nola ordenatzen eta eskatzen dituzu eskaintza bateko lanpostuak? .....	9
Nire eskaera alda dezaket amaitu ondoren? .....	9
Zer behar dut lanpostu bat eskatu ahal izateko? .....	9
Zer ondorio ditu lanpostu bat eskatzeak? .....	9
Nola dakit lanpostu bat esleitu zaidan? .....	10
Lanpostu bat esleitu zait. Zer egin behar dut? .....	10
Nola dakit zein izan den eskaintzaren esleipendun? .....	10

Lanpostu bat eskatu baduzu eta esleipenduna izan ez bazara, 15:00etatik aurrera, hautagaiaren Atariko orri nagusian, esleipendunaren ordena kontsulta dezakezu.....	10
Nolanahi ere, Nire poltsak atalean, zure poltsetako azken esleipenak ikus ditzakezu.....	10
Nola egiaztatu behar dituzte hautagaiak betekizunak?.....	10
Lan-poltsan sartzeko eta eskaintzako lanpostu bat eskatzeko agertzen dituzun baldintzak betetzen dituzula adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena bete beharko duzu. ....	10
Eskaintza bat jaso dut 4. HE duen plaza batekin, baina nik 3. HE daukat. Betetzen al dut plazaren hizkuntza-eskakizunaren baldintza?	
Dagozkion erregistroetan kontsulta egitearen aurka bazaude, eskatutako baldintza betetzen duzula egiaztatzen duen agiria erantsi beharko duzu.....	11
Era berean, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko duzu Administrazioak eskatzen duenean, salbu eta Administrazioak bere ahalordea duenean edo dagozkion erregistroetan kontsultatzeko gaitasuna duenean.....	11
Nola egin ditzaket poltsen kudeaketarekin lotutako kontsultak? .....	11
Menu nagusian, kontsulta-postontzian sar zaitezke, eta, bertan, poltsei buruzko kontsulta guztiak egin ahal izango dituzu. Postontzi honek gaur egungo provision-seleccion@euskadi.eus -eko telefonoa eta posta ordezkatzan ditu.....	11
GARRANTZITSUA!!! Zure kontsulten erantzunak Nire karpeta atalean jasoko dituzu.....	11
Zer gertatzen da amatasun- edo aitatasun-baimena hartzeko baldintzak betetzen badituz? .....	11
Amatasun- edo aitatasun-baimena hartzeko baldintzak betetzen badituzu eta lanpostu baten esleipendun bazara, lanpostu hutsa, txanda-kontratua, zerbitzu eginkizuna edo zerbitzu berezietako motatakoa, izendapena izango duzu, lanpostua gordeko zaizu, eta ordezkaturia izango zara baimena iraungi arte.....	11
Baimena amaitzean lanean hasten ez bazara, 12 hilabetez egongo zara hautaezinen egoeran poltsa guztietan.....	12
Zer berezitasun ditu txanda-kontratuak? .....	12
Nola egiaztatu behar dut % 33ko desgaitasuna dudala?.....	12
¿EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan ematen ditudan zerbitzuak bateragarriak dira bigarren jarduera batekin?.....	12

## Berrikuntza aipagarrienak

### Telefono-deien orde, kudeaketa telematikoa egingo da.

Esleipendun izateko aukera izanez gero, dei bat egin beharrian, **sms bat eta mezu elektronikoa bat** jasoko dituzu, beti ordu tarte berean, **9:00etatik 10:00etara**, Atarian eskaintza bat duzula jakinarazteko.

Eskaintzaren **jakinarazpena aldi berean** bidaltzen zaie **eskaintzaren baldintzak eta zehaztapenak** betetzen dituzten eta esleipendun izateko aukera duten langileei.

**Atarian sartu behar zara** eskaintzen den plazari edo plazei buruzko xehetasunak ezagutzeko.

Eskaera egin behar duzu interesatzen zaizkizun **plazak ordenatuz**. Erabaki dezakezu ez zaizula bat ere interesatzen. **Eskaera digitalki sinatu behar duzu (aplikazioak berak aukera ematen dizu) eta 13:00ak baino lehen** bidali behar duzu telematikoki.

Eskaera bat egiten baduzu, esleipen-prozesuan parte hartuko duzu. Esleipenduna izango da parte hartu dutenen artean **hurrenkerarik onena** duena.

**15:00etan, Atarian argitaratuko da** esleipendunaren hurrenkera-zenbakia, esleipena behar bezala egin dela egiazta dezazun. Salbuespen gisa, hurrenkeraren orde, esleitzeko irizpidea arautzen duen artikulua agertuko da.

**Esleipenduna bazara, SMS bat eta mezu elektronikoa bat** jasoko dituzu, atarirako esteka batekin. Nire eskaintzak atalera sartu eta plaza sakatuta, inkorporaziorako datuak ikusi ahal izango dituzu: telefonoa edo harremanetarako helbide elektronikoa, edo aurkezteko lekua eta ordua.

### Eskaintzen zaizkizun plazak onartzeko denbora luzatu da

Bai premiazko hornidurako plazetan, bai plaza arruntetan, erantzuteko epea 3 ordukoa da, gutxienez, baina gehienetan 4 ordukoa izango da.

### Lan-poltsan duzun egoera erabakitzea zure esku dago

Bi egoeratan bakarrik egon zaitezke: **lanerako prest edo hautaezin**.

Oro har, **prest egotea edo ez egotea borondatezko** aukera da, eta zure esku dago.

Hiru salbuespen baino ez daude zure borondatez lanerako prest jartzea eragozten dizutenak:

- Dotazio berean **12 hilabete baino gutxiago egotea lanean** administrazio honetan.
- **Zigortuta** egotea.
- **Txanda-kontratuan** egotea.

Eskaintzak jasotzeko lanerako prest egoeran egon behar duzu.

## Kontratua edo izendapena hobetu dezakezu

Administrazio honetan **lanean ari bazara** ere, lanerako prest jar zaitezke, eta **eskaintzak jaso**, eta horrela **zure kontratua hobetu**.

**Baldintza** bat bete behar duzu: **12 hilabetez jarraian dotazio bera betetzea**.

**Prest jartzea zure esku dago**. Hobetzeko eskaintzak jaso nahi badituzu, zure egoera aldatu eta **"prest" jarri** behar zara. Aldaketa hau egiteko ez duzu ezer egiaztatu behar.

### Hobekuntza adibideak:

Ordenantza gisa lan egiten baduzu, eta zuzenbide-poltsakoa ere bazara, zuzenbide-poltsan bakarrik jar zaitezke lanerako prest, eta poltsa horretatik soilik jasoko dituzu eskaintzak.

Lanaldi-murrizketa edo ordutegi berezia duen izendapen batekin ari bazara lanean, lanaldi edo ordutegi arrunten eskaintzetarako bakarrik lanerako prest jar zaitezke.

Gasteizen ari bazara lanean, Bilbon bakarrik jar zaitezke poltsa horretako eskaintzetarako.

## Jaso nahi dituzun eskaintzak hobeto zehaztu ditzakezu

Jaso nahi dituzun eskaintzak zehazteko eta zure behar pertsonaletara egokitzeko **aukerak areagotzen dira**. Zuk erabakitzen duzu:

- **Noiz lan egin nahi duzun**: lanerako prest ala ez.
- **Non**: eremu geografiko txikiagoak, eta zuk erabaki zein interesatzen zaizkizun.
- **Lanaldia**: murriztua, osoa, edozein lanaldi.
- **Ordutegia**: arruntak edo bereziak.
  
- **Prestazio mota**: a) lanpostu hutsak, zerbitzu-eginkizunak, txanda-kontratuak edo zerbitzu bereziak ordezkatzeari; b) edozein motatakoak.

## Nahi beste aldaketa egin dezakezu zure egoeran eta lehenetasunetan, eperik gabe.

Aldaketak telematikoki egin behar dituzu Atarian. Dagoeneko ezin dira telefonoz edo mezu elektronikoz eskatu.

Zure egoera eta lehenetasunak desberdinak izan daitezke lan-poltsa bakoitzean.

Egiten dituzun aldaketek hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Ziurtagiri digitala izan behar duzu: identifikazio- eta sinadura-sistema.

**Ziurtagiri digitalik gabe, ezin zara Atarian sartu,** eta, beraz, ezin duzu eskaintzarik onartu, ezta poltsekin lotutako inolako kudeaketarik egin ere.

**B@kQ** gomendatzen dugu

Esteka honetan **ziurtagiri digital bat nola lortu adierazten da:**

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu>

**Poltssetako kudeaketa Atarian egin behar duzu**

Erregulazio berriak lan-poltsak kudeatzen dituen pertsonarekiko **harreman-modua aldatzen du.** Hemendik aurrera, **bitarteko elektronikoak erabili behar dituzu** lan-poltsekin lotutako edozein izapide egiteko. Izapide horien artean daude:

- Lan-poltsen kudeaketari buruzko era guztietako kontsultak,
- Zure datu pertsonalak aldatzea,
- Zure egoera edo lehentasunak aldatzea,
- Lan-eskaintza bat onartzea,
- Betekizunak alegatzea edo egiaztatzea,
- Desgaitasuna egiaztatzea.

**Eskatutako lanpostu bati edo izendapen edo kontratu bati uko egiteak ez dakar behin betiko baja.**

Zigortzeko arrazoiak

I.- **Eskatutako lanpostu bati uko egitea edo betetzen ari zaren lanpostuari uko egitea.** Zigorra **poltsa guztietan 12 hilabetez hautaezin egotea** izango da.

II.- **Azken 30 egunetan poltsa beretik jasotako hiru eskaintza ez onartzea.** Zigorra **poltsa horretan 9 hilabetez hautaezin egotea** da.

**Nola zenbatzen dira poltsa bereko hiru eskaintzak?**

Jasotzen duzun eskaintza bakoitzak poltsa bereko edo desberdinetako plaza bat edo gehiago izan ditzake. Eskaintza eta poltsa bakoitzaren barruan plaza bat eskatzea nahikoa da penalizaziorako hiru eskaintzak zenbatzen ez hasteko.

Adibidez: Zuzenbideko eta administrari laguntzaileen poltsetan dagoen pertsona batek zuzenbideko plaza bat eta administrari laguntzailearen bi plaza jasotzen ditu eskaintza batean.

Hainbat kasu:

a. Zuzenbideko plaza baino ez du eskatzen. Zuzenbideko lan-poltsan ez da zenbaketa handitu, baina bai administrari laguntzaileen lan-poltsan. Administrari laguntzaileen poltsan zenbaketa 1 bakarrik gehitu da.

b. Ez du zuzenbideko lanpostua eskatzen, eta administrari laguntzailearen bi plazetako bat baino ez du eskatzen; zenbaketa zuzenbideko poltsan handitu da, baina ez administrari laguntzailearen poltsan, poltsa horretako plazetako bat eskatu baitu.

c. Ez du eskatzen eskaintzako lanposturik; zuzenbideko lan-poltsan eta administrari laguntzaileen lan-poltsan kopuruak gora egin du. Administrari laguntzaileen poltsan 1 bakarrik gehitu da zenbaketa.

Bi poltsa horietakoren batean dagoeneko bi eskaintza balitu (azken 30 egunetan bi eskaintzari uko egin izan balie), dagokion poltsan 9 hilabetez hautaezin egoeran egoteko zigorra aplikatuko litzateke.

Eskatzailerik ez dagoelako plaza bat esleitu gabe geratzen bada, plaza hori ez zaie berriro eskainiko jada eskaini eta eskatu ez dutenei.

## Non jasotzen ditut penalizazio-jakinarazpenak edo behin betiko bajaren jakinarazpena?

Poltsen ataritik bidalitako komunikazioak/jakinarazpenak euskadi.eus-eko "nire karpeta" atalean kontsultatu ahal izango dira. Interesdunek karpeta horretara sartu beharko dute, horretarako onartutako ziurtagiri digitalen batekin identifikatuta.

<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

## Eragiten al dit Xedapen Iragankorrak?

Xedapen iragankorrak honako baldintza hauek betetzen dituzten langileei eragiten die:

- Gaur egun, lanpostu hauetako bat betetzen du: auditorea, Zuzenean agentea, Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikaria, enpresako OLT, enpresako medikua, berdintasun-teknikaria, kanpo-ekintzako teknikaria. Poltsa propioak dituzten lanpostuak dira.
- Duen izendapena dela eta, betetzen duen lanpostuko beste dotaziotara soilik mugi daiteke.
- Lanpostu-poltsa agortu ondoren, salbuespenezko kudeaketaz hautatua izan zen kidego-poltsa batetik, eta lanpostu-poltsan integratu zen. Betetzen duen lanpostua bere hasierako poltsaren kidegora irekita dago.

## Ohiko galderak

### Nola alda ditzaket jaso nahi ditudan eskaintzei buruzko nire lehentasunak edo poltsetan dudan egoera?

Atarian, ziurtagiri digital batekin identifikatu ondoren, **zure lehentasunak alda ditzakezu**. **Zure intereseekin bat ez datozen eskaintzak** jasotzen badituzu, zure lehentasunak aldatzea gomendatzen dizugu.

**Lehentasunak desberdinak izan daitezke poltza bakoitzean.**

### Zenbat deialdi telematiko mota jaso ditzaket?

Hiru deialdi telematiko mota jaso ditzakezu, helburuaren arabera:

- **Lanpostuen eskaintzak**: ohiko deialdia da, eta egunero egingo da. Eskatzen dutenen artean lanpostuak esleitzea du helburu.

- **Proba edo proiektua behar duten lanpostuetan parte hartzeko deialdia**: proba edo proiektu bat gainditzea eskatzen duten prozesuetarako langileak bilatzea helburu duen ezohiko deialdia. Deialdi horietan probaren gai-zerrendaren eta dataren berri emango da.

- **Lanpostu-zerrendaren eskakizunen alegazioa**: ezohiko deialdia, lanpostu batzuk betetzeko eskakizun espezifikoak dituzten lan-poltsak osatzen dituzten langileak identifikatzeko helburuarekin: genero-berdintasunaren arloko prestakuntza, web-kudeatzailea, etab. Hori izango da lan-poltsen ezohiko kudeaketaren aurreko urratsa.

### Nola egiten da lanpostuen eskaintza?

Eskaintzak prozedurari jarraiki egiten dira, errazago kontrolatu ahal izateko.

Eskaintzaren **jakinarazpena** egiteko, mezu bera bidaltzen zaie **SMS eta mezu elektronikoko** bidez **eskaintzaren baldintzak eta zehaztapenak** betetzen dituzten langileei **aldi berean**. Komunikazio hori 09:00 eta 10:00 artean gertatzen da.

Mezuan, Atarirako **esteka** bat dago. Ziurtagiri digitala erabiliz sartu behar duzu atarira.

Nire eskaintzak atalean **lanpostuaren ezaugarrien berri** ematen da: lanpostua, dotazioa, zuzendaritza, saila, prestazio-mota, laneratze-data, udalerrria, ordainsaria. Menuko puntu horretatik egin dezakezu eskaintzaren eskaera.


## Zer ordutegitan kudeatzen dira eskaintzak?

Eskaintzak kudeatzeko **ordutegiak** aurrez zehaztuta daude, egun osoan mugikorraren zain egon beharrik izan ez dezazun.

- **09:00etatik 10:00etara** Atarian jasotzen dira eskaintzak (Nire eskaintzak)
- **13:00ak baino lehen** egin behar da eskaera Atarian.
- **15:00etatik aurrera** Atarian argitaratzen da esleipena.

## Arazoak izan ditut mugikorrarekin. Sar naiteke eskaintzetan?

Mezu elektronikoa edo SMSa jaso ezin izan baduzu ere, atarian kontsulta dezakezu eskaintzarik jaso duzun.

Eskatzeke dauden eskaintzak badituzu,  izango duzu zenbaki batekin nire eskaintzak atalean. Zenbakia zirkulu berde batez inguratuta badago, oraindik egin dezakezu eskaera.

## Nori egiten zaio eskaintza?

Eskaintza aldi berean bidaltzen zaie **eskaintzaren zehaztapan berdinak eta esleipendun izateko aukera duten eta lanerako prest dauden langileei.**

## Zer egin behar dut eskaintza bat onartzeko?

Mezua jaso ondoren, atarira sartu behar zara. Atarian, sistemak gidatuko zaitu eskaintza onartzeko.

- Eskaintza bat jasotzen baduzu, **lanposturik ez eskatzeko aukera duzu** inolako zigorrik gabe. Hala ere, **zenbaketa hasiko da**, eta **azken 30 egunetan ez baduzu lanposturik eskatzen poltsa bereko hiru eskaintzatan, poltsa horretan hautaezin egoeran egongo zara 9 hilabetez**. Zure beharretara egokitzen ez badira, lehentasunak aldatzea gomendatzen dizugu.

- **Lanpostu bat eskatzeko, sinadura digitala behar da.**

- Eskaintza jaso eta **lanpostu bat eskatzeak** ez du esan nahi esleipenduna zarenik. Eskatzeak ez du esan nahi lanpostua esleituko zaizunik.



## Nola ordenatzen eta eskatzen dituzu eskaintza bateko lanpostuak?

**Nire eskaintzak atalean**, baldintzak bete eta zure lehentasunen arabera diren eguneko eskaintzako lanpostu guztiak aurkezten dira.

Eskaintza batek hainbat lanpostu dituenean, interesatzen zaizkizunak **soilik** ordenatu eta eskatu behar dituzu.

**Gehien interesatzen zaizun postuaren arabera ordenatzen hasi behar duzu.** Aplikazioak 1 zenbakia baino ez dizu emango. Ondoren, interesatzen zaizun hurrengo lanpostuarekin jarraitu behar duzu; aplikazioak 2. zenbakia bakarrik emateko aukera emango dizu, eta horrela hurrenez hurren.

## Nire eskaera alda dezaket amaitu ondoren?

Bai, betiere epea amaitu baino lehen: 13: 00etan.

## Zer behar dut lanpostu bat eskatu ahal izateko?

Eskaintza bat eskatu ahal izateko, Atarian sartu behar zara; beraz, **ziurtagiri digital** bat behar duzu.

- B@kQ gomendatzen dugu:

- Edozein gailutatik eta Interneterako konexioa duen edozein lekutatik erabil dezakezu.
- Ez duzu softwarerik instalatu behar, ezta nabigatzailea konfiguratu behar ere.
- Ez duzu txartel-irakurgailurik behar.
- Legezko balio osoa du eta erabat segurua da.
- Doakoa da.

• **Pertsonak bere burua identifikatzeko eta dokumentuak Interneten sinatzeko aukera ematen duen sistema da.** Honetan datza:

- Identifikatzaile bat, erabiltzailearen NAN/AIZarekin bat datorrena.
- Pasahitz bat.
- 16 posizioko koordinatu-jokoa.

## Zer ondorio ditu lanpostu bat eskatzeak?

- Lanpostu bat **eskatzeak ez du esan nahi esleipenduna izango zarenik.**
- Lanpostua **eskatu dutenen artean hurrenkerarik onena duenari** esleitzen zaio.

- Hala ere, **lanpostu bat eskatzeak** prozesu batean parte hartzea dakar, eta **uko egiteak zigorra dakar**. Lanpostua interesatzen zaizun ala ez garbi ez baduzu, ez duzu eskatu behar.

- **Lanpostu baten esleipenduna bazara eta lanean hasten ez bazara, 12 hilabetez lanerako prest ez egoeran egongo zara poltsa guztietan**. Uko egiten baduzu, lehenbailehen jakinarazi beharko duzu harremanetarako telefonoan edo postan.

## Nola dakit lanpostu bat esleitu zaidan? NIRE ESLEIPENA

Lanpostua esleitu zaion pertsona bazara, **SMS bat eta mezu elektronikoko bat jasoko dituzu**, atarirako esteka batekin. Nire eskaintzak atalera sartu eta esleitu zaizula ikusiko duzu, **“nire esleipena”** agertuko bait zaizu.

Nolanahi ere, 15: 00etatik aurrera Atarian kontsulta dezakezu lan-eskaintza baten esleipenduna izan zaren.

## Lanpostu bat esleitu zait. Zer egin behar dut?

Atarian nire eskaintzak atalera sartu behar zara eta lanpostuan klik eginez, esleitutako postuaren berri emango zaizu xehetasunez, bai eta lanean hasteko eman beharreko hurrengo urratsen berri ere. **Telefono zenbaki bat edo helbide elektronikoko bat ere emango zaizu**, edo, hala badagokio, aurkeztu behar zaren tokia eta ordua.

**Dokumentu bat deskargatu ahal izango duzu** datu horiekin guztiekin, eta kontratua edo izendapena sinatzeko aurkeztu behar duzun dokumentazioaren informazioarekin.

## Nola dakit zein izan den eskaintzaren esleipendun?

**Lanpostu bat eskatu baduzu** eta esleipenduna izan ez bazara, **15:00etatik aurrera, hautagaiaren Atariko orri nagusian**, esleipendunaren ordena kontsulta dezakezu.

Nolanahi ere, **Nire poltsak atalean**, zure poltsetako **azken esleipenak** ikus ditzakezu.

## Nola egiaztatu behar dituzte hautagaiek betekizunak?

Lan-poltsan sartzeko eta eskaintzako lanpostu bat eskatzeko agertzen dituzun **baldintzak betetzen dituzula adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena** bete beharko duzu.

Dagozkion erregistroetan kontsulta egitearen aurka bazaude, eskatutako baldintza betetzen duzula egiaztatzen duen agiria erantsi beharko duzu.

Era berean, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa **aurkeztu beharko duzu Administrazioak eskatzen duenean**, salbu eta Administrazioak bere ahalordea duenean edo dagozkion erregistroetan kontsultatzeko gaitasuna duenean.

## Eskaintza bat jaso dut, 4. hizkuntza-eskakizuneko duen plaza batekin, nik 3. hizkuntza-eskakizuna baino ez daukat. Betetzen dut lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna?

3. hizkuntza-eskakizuna baduzu, eta 4. hizkuntza-eskakizuna duen hautagairik ez balego, iraungitako datarekin 4. hizkuntza-eskakizuna duten plazen esleipenduna izan zaitezke.

Ondorioz, zuzena da eskaintzaren baldintzak betetzen dituzula dioen erantzukizunpeko adierazpena.

Poltsatik eskaintza bat jasotzen baduzu horrelako plaza bakarrarekin (4. HE, iraungitako datarekin) eta eskatzen ez baduzu, penalizaziorako zenbaketa bat gehituko da.

## Nola egin ditzaket poltsen kudeaketarekin lotutako kontsultak?

Menu nagusian, kontsulta-postontzian sar zaitezke, eta, bertan, poltsei buruzko kontsulta guztiak egin ahal izango dituzu. Postontzi honek gaur egungo provision-seleccion@euskadi.eus -eko telefonoa eta posta ordezkatzan ditu.

### **GARRANTZITSUA!!!**

**Zure kontsulten erantzunak Nire karpeta** atalean jasoko dituzu.

## Zer gertatzen da amatasun- edo aitatasun-baimena hartzeko baldintzak betetzen badituz?

Amatasun- edo aitatasun-baimena hartzeko baldintzak betetzen badituzu eta lanpostu baten esleipendun bazara, lanpostu hutsa, txanda-kontratua, zerbitzu eginkizuna edo zerbitzu berezietako motatakoa, izendapena izango duzu, lanpostua gordeko zaizu, eta ordezkaturia izango zara baimena iraungi arte.

Baimena amaitzean lanean hasten ez bazara, **12 hilabetez egongo zara hautaezin egoeran poltsa guztietan.**

## Zer berezitasun ditu txanda-kontratuak?

Txanda-kontratua erretiro partziala eskatu duen langile bat ordezkatzeko sinatzen da, eta Langileen Estatutuaren 12.6 eta 12.7 artikuluek eta 5/2013 Errege Lege Dekretuak arautzen dute.

Beraz, kontratu horiek erretiro partzialari lotuta daude, eta erretiro partziala hartu duenak erretiro osoa hartzeko adina betetzen duenean amaitzen da.

Batez beste 4 urteko iraupena duten kontratuak dira, eta, kasu askotan, erretiro osoaren ondoren erreleboa hartu duena mantentzen da.

**Txanda-kontratua** indarrean duten langileak **ezin dira lanerako prest jarri** kontratu hori amaitu arte.

Kontratuari uko egiten badiozu, **12 hilabetez egongo zara hautaezin egoeran, poltsa guztietan.**

## Nola egiaztatu behar dut % 33ko desgaitasuna dudala?

Gutxienez % 33ko desgaitasuna aitortua baduzu, aitortpena eskatu ahal izango duzu Atarian, lan-poltsen kudeaketarako.

Horretarako, honako agiri hauek erantsi beharko dizkiozu eskabideari:

1.- Eskumena duen organoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Foru Aldundiak, emandako ziurtagiria baloratzeko. Ziurtagiriak azken 12 hilabeteetan emandakoa izan beharko du.

2.- Osakidetzako edo beste osasun-zerbitzu publiko bateko osasun-profesional batek emandako txosten tekniko fakultatiboa. Irizpen hori Eusko Jaurlaritzako Prebentzio Zerbitzuko medikuek baino ezin izango dute ikusi.

Izapide hori egin ondoren, zerbitzu medikoa zurekin harremanetan jarriko da, zeregin jakin batzuk betetzeko egokitzapenak egiteko beharra, eta zure gaitasun funtzionala baloratzeko.

% 33tik beherako desgaitasuna egiaztatu duten langileek ez dute lehentasunik izango lan-eskaintzetan.

## ¿EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan ematen ditudan zerbitzuak bateragarriak dira bigarren jarduera batekin?

Oro har, ezin dira bi jarduera bateratu, lanaldi partzialak eta ordutegiak bateragarriak izan arren. Irakaskuntza- eta osasun-eginkizunak salbuetsita daude, baina,

horretarako, ezinbestekoa izango da aldez aurretik berariazko bateragarritasun-baimena izatea.

Zalantzarik izanez gero, kontsultatu 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen zerbitzuko langileen Bateriaezintasunei buruzkoa (BOE, 1985-01-04), eta, zalantzak badirau, kontsulta egin dezakezu Funtzio Publikoko Zuzendaritzan.